

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

ASKATASUNAREN HIRIBIDEA, 12



Egile ezezaguna, 1873
(Artxiboan ez dago eraikuntza proiekturik)

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, behe oina, bost goi oin eta bi jasodura atzeraeman dituena. Harlanduzko fatxada, bao zentrolean hormigoizko begiratokia duena.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokituko da.

2.- Berariazko erregimena.

A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemanak (6. eta 7. goi oinak).

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; hormigoizko begiratokia.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.